

2018. Ordenantza fiskalak. Behin betiko onarpena 2017ko abenduaren 22an izandako Bermeoko Udaleko Osoko Bilkuran BAO 2017/12/29. 247. zk., 6. zatia. Akats zuzenketak BAO 2018/01/24. 17 zk.
Akats zuzenketa BAO 28 2018-02-08

TRAKZINO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGEA ARAUTZEN DAUEN ORDENANTZA FISKALA

1. artikulua- XEDAPEN OROKORRAK

Udal honek ordenantza honen arabera ezarri eta eskatzen dau udalerrri osoan Trakzino Mekanikoko Ibilgailuen ganeko Zergea Trakzino Mekanikodun Ibilgailuen ganeko Zergeari buruzko 7/1989 Foru Arauan ezarritakoagaz bat etorriz. Ordenantza honen zatia da zergearen kuotak dakarzan eranskina be.

2. artikulua- ZERGA EGITATEA

Zerga egitatea izango da:

1.- Bide publikoetan ibiltekoak diran trakzino mekanikodun ibilgailuen titularrak, ibilgailua edozein klase edo kategoriatakoa izanda be.

2.- Zirkulazinarako moduko ibilgailuari erregistro publikoetan matrikulatutako ibilgailuari deritxo, beti be, erregistroetan bajarik emon ez bada. Zerga honen ondorioetarako, zirkulazinarako moduko ibilgailutzat hartuko dira aldi baterako baimenak eta matrikula turistikoak daukiezan ibilgailuak.

3.- Ez dabe zergea ordaindu behar izango:

- a) Modeloaren antxintasuna dala-eta erregistroan baja emondako ibilgailuak izanda salbuespenez zirkuletako baimenduak izan leitekezan ibilgailuak, era horreetako ibilgailuetarako baino ez diran erakusketa, lehiaketa edo lasterketetan parte hartzeko.
- b) Trakzino mekanikodun ibilgailuak darabilezan atoiak eta erdi-atoiak, haren karga erabilgarria 750 kg.tik gorakoa ez bada.

3. artikulua- SALBUESPENAK ETA HOBARIAK

1.- Zergea ordaintzetik salbuesita dagoz honeek:

- a) Estaduaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Lurralde Historikoaren eta tokiko erakundeen ibilgailu ofizialak, herritarren defentsarako edo segurtasunerako badira.
- b) Ordezkeri diplomatikoen, konsuladuetako bulegoen, diplomazia agenteen eta konsuladuko funtzionarioen ibilgailuak, beti be, halan dirala egiaztauta. Horreek guztiak herrialde bakotzekoak izango dira, kanpora begira identifikauta joango dira eta haren maila eta zabalkundeak egokiak izango dira.

Era berean, Espainiako estatuan egoitza edo bulegoa daukien nazinoarteko erakundeen eta hareen funtzionarioen edo diplomazia-estadia daukien kideen ibilgailuak.

c) Nazinoarteko itunen edo hitzarmenen bidez salbuetsita dagozan ibilgailuak.

d) Anbulantziak eta osasun laguntasunagaz lotura zuzena daukien ganerako ibilgailuak, edo arauetan ezarritakoak diran erakunde antzekoen ibilgailuak.

e) Mobiteko eragozpenak daukiezan personentzako ibilgailuak, abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Ibilgailuen Araudi Orokorreko II. eranskineko A letran adierazitakoak, ezindu baten izenean matrikulauta dagozanean.

Era berean, salbuetsita dagoz ezindu baten izenean matrikulautako 14 zerga zalditik beherako ibilgailuak, ezinduak erabilteko baino ez diranak. Salbuespen hau inguruabar horreek hala irauten daben bitartean aplikauko da, eta aplikau be, urrituek eurek gidatzen dabezan ibilgailuei zein eurek garraiatzeko erabilten diranei aplikauko jake.

Aurreko paragrafo bietan ezarritako salbuespenak ezin dira aplikau batera, hau da, onuradun bati ez jake bat baino besterik aplikauko, ibilgailu bat baino gehiago euki arren.

Letra honetan xedatutakoaren ondoretarako, hauexek hartuko dira persona ezindutzat:

a') %33 - 65 bitarteko minusbalio-gradua onartuta daukiela mobiteko gaitasuna murriztuta daukien personak; halakotzat joko dira minusbalio-gradua aintzatetsi, adierazo eta kalifikatzeari buruzko abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren III. eranskineko baremoko A, B edo C letretan adierazotako egoeretako batean dagozanak eta baremo horretako D, E, F, G edo H letran 7 puntu edo gehiago daukiezanak.

b') %65eko minusbalio-gradua edo handiagoa daukien personak

Aurreko a') eta b') letretan sartuta dauden pertsonen artean, 1971/1999 Errege Dekretuko III. eranskin gisa agertzen den baremoan A letrako mugitu ezintasunaren egoeran daudenei, ez zaie aplikatuko 14 zerga zaldien muga, baldin eta ibilgailua gurpil-aulkiekin erabiltzeko egokituta badago.

Salbuespenak aplikau ahal izateko, interesdunek eskatu egin beharko dabe, eta eskabidean ibilgailuaren ezaugarriak, matrikulea eta onurearen arrazoia adierazo behar dabe. Salbuespena adierazotakoan, Udal Administrazioak hori frogetan dauen agiria emongo dau.

Interesaduak urritasunaren eta, behar danean, mobidu ezintasunaren ziurtagiria (erakunde eskudunak emona) aurkeztu behar dau eta ibilgailua zertarako erabilten dauen probau behar deutso udalari.

Holan, eskariagaz batera honako honeek aurkeztu beharko dauz:

- Ibilgailuaren zirkulazinoko baimenaren fotokopia.

- Minusbalio-gradua edo, kasuan, mobiteko gaitasuna murriztuta daukala egiaztetan dauen agiria, Bizkaiko Foru Aldundiaren organo eskudunak emondakoa; ez da nahikoa izango ezintasunak baloratzeko taldeek egindako erispen tekniko-fakultatiboa aurkeztea.
- Zinpeko aitortpena, ibilgailua minusbaliadunak ez beste inork erabiliko dauela adierazotekoa.
- Gidabaimenaren fotokopia.
- NAN moetako argazki bi
- Minusbaliaduna bera gidaria ez danean, ibilgailuaren gidaria nor dan edo nor izango dan adierazo beharko dau. Horretarako, personearen NANA eta helbidea aurkeztu beharko dira, ganera NAN neurriko argazki bi be ekarri beharko dira.
- Ibilgailuaren zerga zorrik ez daukanaren egiaztagiria

Udalak salbuespena onartu eta gero, autoan eroateko ezaugarria eta txartela emongo deutsoz interesdunari. Emondako ezaugarriak autoaren aurreko kristalaren ezkerreko aldean egon beharko dau eta txartela beti eroan beharko da autoan.

Txartelean argazki bat agertuko da gidaria eta minusbaliaduna bat diranean eta argazki bi minusbaliaduna eta gidaria pertsona bera ez diranean.

Ikuskaketea eginda agertzen bada baten baino gehiagotan ibilgailu barruan salbuespenaren titularra dan minusbaliaduna ez dagoala, salbuespenerako baldintza dan urrituek eurek salbuetsitako ibilgailua gidatzea edo eurek garraiatzeko erabiltea ez dala beteten ulertuko da. Ondorioa, salbuespena balio barik geratzea izango da.

Dagoaneko erroldan dagozan ibilgailuen kasuan salbuespena eskatzeko epea urtarrilaren 1etik zezeilaren 15era bitartekoa izango da, eta beti be zerga-zorra sortu dan egunean salbuespenerako betekizunak bete ezkerro eta aurreko urteetako zerga kuotak ordainduta euki ezkerro, urteko erroldan bertan aplikauko da salbuespena. Epe horretatik kanpo aurkeztutako eskaria izan ezkerro, salbuespena onartu arren, eskaria egin dan urtearen hurrengo ekitaldian sortuko daz ondorioak eta ez dau eukiko atzera eraginik.

Ibilgailu barrien kasuan matrikuletan dan egunetik 10 eguneko epean aurkeztu ezkerro eskaria eta beti be zerga-zorra sortu dan egunean salbuespenerako betekizunak bete ezkerro, salbuespena onartu ahal izango da eta behin-betiko kitapenaz itzuliko da autolikidazinoz ordaindutakoa.

Salbuespena titular baten ibilgailu batentzat bakarrik emongo da.

Testu hau indarrean jarri aurretik Zergearen kargatik salbuetsita egon diran ibilgailuen kasuak aztertuko daz Errenta Sailak. Espedienteetan egon dagozan agiriakaz testu barrian ezarritako betekizunak beteten dirala probau ezkerro, ofizioz berehala salbuetsita egongo dira. Bestela 2010 urteko zerga salbuespena baliogabetuta geratuko da eta erroldaz zergea kitatuko da. Kasu honetan salbuespena eskatu beharko dabe testu barrian ezarritako betekizunak beteten dirala probauta. Salbuespenak 2010. urtean bertan eragina euki daian eskariak aurkezteko epea 2010eko maiatzaren 11n amaituko da.

g) Nekazaritza Ikuskapeneko Kartilan agertzen diran traktoreak, atoiak, erdi-atoiak eta makineria.

Salbuespen hau aplikatu ahal izateko, interesdunek eskaria egin behar dabe ibilgailuaren ezaugarriak, matrikulea eta ezinbesteko agiria aurkeztuta. Udal Administrazioak salbuespena onartu eta gero, berau egiaztetako agiria emongo deitso interesdunari.

Dagoaneko erroldan dagozan ibilgailuen kasuan salbuespena eskatzeko epea urtarrilaren 1etik zezeilaren 15era bitartekoa izango da, eta beti be zerga-zorra sortu dan egunean salbuespenerako betekizunak bete ezkeru, urteko erroldan bertan aplikatu da salbuespena. Epe horretatik kanpo aurkeztutako eskaria izan ezkeru, salbuespena onartu arren, eskaria egin dan urtearen hurrengo ekitaldian sortuko dauz ondorioak eta ez dau eukiko atzera eraginik.

Ibilgailu barrien kasuan matrikuletan dan egunetik 10 eguneko epean aurkeztu ezkeru eskaria eta beti be zerga-zorra sortu dan egunean salbuespenerako betekizunak bete ezkeru, salbuespena onartu ahal izango da eta behin-betiko kitapenaz itzuliko da autolikidazinoz ordaindutakoa.

2. Zerga kuotaren hobari honeek egingo dira:

a) Familia ugaria tituludun kide baten titularidadeko bost plaza edo gehiagoko ibilgailuari:

- Katetoria orokorreko familia ugariko kideari: % 50ko hobaria
- Katetoria bereziko familia ugariko kideari: % 75eko hobaria

Hobaria aplikatu ahal izateko, interesdunek berariaz eskatu egin beharko dabe, eta eskabidean ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta Bizkaiko Foru Aldundiak emondako Familia Ugariaren titulua aurkeztu beharko dauz.

Derrigorrezkoa da zerga sorten dan egunean familia ugarikoa izatea.

Dagoaneko erroldan dagozan ibilgailuen kasuan hobaria eskatzeko epea urtarrilaren 1etik otsailaren 15era bitartekoa izango da, eta beti be zerga-zorra sortu dan egunean hobarirako betekizunak bete ezkeru eta aurreko urteetako zerga kuotak ordainduta euki ezkeru, urteko erroldan bertan aplikatu da hobaria. Epe horretatik kanpo aurkeztutako eskaria izan ezkeru, hobaria onartu arren, eskaria egin dan urtearen hurrengo ekitaldian sortuko dauz ondorioak eta ez dau eukiko atzera eraginik.

b) Kuotaren %75eko hobaria eukiko dabe motor elektrikoko edota isuri bako ibilgailuak.

c) Kuotaren %35eko hobaria motor hibridoa daukien ibilgailuak edo erragaitzat gas naturala edo petroliotik likidotutako gasak erabiltzen dabezan ibilgailuak matrikulatzen diranetik lau urtetan.

b) eta c) ataletako hobariak eukitzeko, interesdunek eskatu egin beharko dabe, eta eskabidean ibilgailuaren ezaugarriak, matrikulea eta onurearen arrazoa erakutsi behar dabez.

Dagoaneko erroldan dagozan ibilgailuen kasuan hobaria eskatzeko epea urtarrilaren 1etik otsailaren 15era bitartekoa izango da, eta beti be zerga-zorra sortu dan egunean hobarirako betekizunak bete ezker eta aurreko urteetako zerga kuotak ordainduta euki ezker, urteko erroldan bertan aplikatuko da hobaria. Epe horretatik kanpo aurkeztutako eskaria izan ezker, hobaria onartu arren, eskaria egin dan urtearen hurrengo ekitaldian sortuko dauz ondorioak eta ez dau eukiko atzera eraginik.

Ibilgailu barrien kasuan matrikulatzen dan egunetik 10 eguneko epean aurkeztu ezker eskaria eta beti be zerga-zorra sortu dan egunean hobarirako betekizunak bete ezker, hobaria onartu ahal izango da eta behin-betiko kitapenez itzuliko da autolikidazinoz ordaindutakoa.

d)Kuotaren %100a 1247/1995 Errege Dekretuz onartutako Ibilgailu Historikoen Erreglamenduaren arabera ibilgailu historioak diran ibilgailuentzat. Erreglamenduan ezarritako betekizun guztiak betetzen dirala erakutsi beharko dira jagokezan agiriak aurkeztuta.

Hobaria eukitzeko, interesdunek eskatu egin beharko dabe, eta eskabidean ibilgailuaren ezaugarriak, matrikulea eta onurearen arrazoa erakutsi behar dabez.

Dagoeneko erroldan dagozan ibilgailuen kasuan hobaria eskatzeko epea urtarrilaren 1etik otsailaren 15era bitartekoa izango da, eta beti be zerga-zorra sortu dan egunean hobarirako betekizunak bete ezker eta aurreko urteetako zerga kuotak ordainduta euki ezker, urteko erroldan bertan aplikatuko da hobaria. Epe horretatik kanpo aurkeztutako eskaria izan ezker, hobaria onartu arren, eskaria egin dan urtearen hurrengo ekitaldian sortuko dauz ondorioak eta ez dau eukiko atzera eraginik

4. artikulua- SUBJEKTU PASIBOAK

Zerga honen subjektu pasiboak dira tributuen Foru Arau Orokorraren 34. artikuluan aitatzen diran erakundeak eta persona fisikoak edo juridikoak; horretarako, horreen izenean egon behar dau ibilgailu zirkulazino baimenak.

Urte bakoitzean sei hilebetetik gora atzerrian bizi diran subjektu pasiboek Espainiako lurraldean helbideratutako ordezkari bat izentau beharko dabe, udal ogasunaz izan leitekezan hartu-emonetarako.

5. artikulua- KUOTEA

1. Eranskinen kuoten taularen arabera eskatuko da zergea.

2. Ibilgailu moetea finketako, arauetan ezarritakoa bete beharko da, eta ganera honeek arauak hartu beharko dira kontuan:

a) Furgonetatzat ondokoak joko dira: personak eta gauzak batera garraiatu ahal izateko moldatutako turismo-ibilgailuak, hainbat jesarleku eta kristal kendu jakezanak, ateen neurriak edota kokalekua aldatu, eta bestelako aldaketak egin jakezanak, baina jatorrizko ibilgailuaren modeloaren ezaugarriak funtsean aldatu barik.

Furgonetakaitik, turismoak baliran moduan ordainduko da Zergea, euren zerga-potentziaren arabera, ondoko kasuetan izan ezean:

-Ibilgailua bederatzi persona baino gehiago, gidaria barru, garraiatzeko gaituta badago, Zergeak autobusa balitz lez kargauko dau.

-Ibilgailuak 525 kg-tik gorako zama erabilgarria garraiatzeko baimena badauka, Zergeak kamioia balitzen moduan kargauko dau.

b) Zerga honen ondoreetarako, moto-burdiak motozikletatzat joko dira eta, beraz, euren zilindradearen edukierearen arabera ordainduko da Zergea.

c) Ibilgailu artikuladuei jagokenez, Zergak aldi berean eta bereiztuta kargauko dauz arraste-indarra daukan ibilgailuak eta harek herrestan daroazan atoiak eta erdi atoiak.

d) Edukieroa dala-eta matrikulau beharrik ez daukien ziklomotorrak, atoiak eta erdi-atoiak zirkuletako gai diran ibilgailutzat joko dira Industria Ordezkaritzeak horren ziurtagiria emoten dauenetik, edo ibilgailua zirkuletan hasten danetik, kasuan kasu.

e) Makina autopropulsatuakaitik, barriz, trakzino mekanikodun beste ibilgailu batek ganean edo herrestan eroan barik bide publikotik ibili daitekezan makinakaitik, traktoreei jagokezan tarifak kobrauko dira.

Edozelan be, esandako tarifen D hizkiko "traktoreak" izendapenaren barruan, "trakto-kamioiak" eta "obra eta zerbitzuetako traktoreak" sartzen dira.

g) Ibilgailuen Erregelamentu Orokorra onartzen dauen abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren 11.20 artikulua xedatutakoaren arabera, V. eranskinean agindutakoari buruz.

h) Udal administrazioak egiaztatu egin beharko dauz eginiko adierazpenak.

i) 1/2012 FORU ARAUAren 11. artikuluko bat atalean oinarrituta, *autokarabane* *turismo moduan tributatu* *ko dabe*

6. artikulua- ZERGALDIA

1- Zergaldia bat dator urte naturalagaz, ibilgailua lehenengoz erosten danean edo bajea emoten danean izan ezik. Horreetan kasuetan, ibilgailua erosten dan egunean edo bajea Trafikoko Buruzagitzan emoten dan egunean hasiko da zergaldia, hurrenez hurren.

2- Zergaldiaren lehen egunean sortuko da zergea.

3- Zergearen kuotearen zenbatekoa hile naturalen arabera hainbanatuko da, ibilgailuaren lehenengo eskuraketearen edo behin betiko bajearen kasuetan, eta ibilgailuari altea edo bajea emoten jakon eguneko hilea be kontuan hartuko da.

Era berean, ibilgailua ostu edo lapurtzeagaitik ibilgailuari aldi baterako bajea emoten bajako, haren kuotea arestian azaldutako moduan hainbanatuko da, jagokon erregistro publikoan aldi baterako bajea gertetan dan unetik.

7. artikulua- KUDEAKETEA

1- Ibilgailuaren zirkulazinoan baimenean Bermeoko helbidea daukien ibilgailuak izango dira Udalari jagokozan zergen gestioan emoniko datuen kudeaketea, kitapena, bilketea eta berrikuspenaren objektuak.

2- Ibilgailuen errolda Trafikoko Buruzagitzak edota ibilgailuen titularrek eurek emondako datuakaz eguneratuko da urteko errolda fiskalaren oinarria izan daiten.

3- Udalerriko helbideei buruz egon daitezkezan arazo edota datu ezbardinentzako urtenbidea *Kudeaketa, diru-bilketa eta ikuskapenari buruzko zerga ordenantzako 24. eta 25. artikuluetan* xedatutakoa izango da.

4- Urteko lehenengo egunean ibilgailuen erroldan dagozan ibilgailuen zergea erroldazko erreziroz kitatuko da urteko tributuen egutegiaren arabera.

5- Baja kasuan, behin urteko zergea ordainduta, 6. artikuluko 3. atalean xedatuta dagoan hainbanaketea egingo da eta itzuli beharrekoa itzuliko da.

8. artikulua- AUTOLIKIDAZINOA

1- Ibilgailua lehenengoz erosten danean, Trafikoko Buruzagitzan matrikulau aurretik, zergea autolikidazinoz ordainduko da ordenantzako 7. artikuluko 3. atalean xedatuta dagoan hainbanaketea eginda.

2- Autolikidazinoarako agiri honeek aurkeztuko dira [Berh@z](#) bulegoan:

- a) Gidatzeko baimena.
- b) Ezaugarri teknikoen egiaztageria.
- c) NAN edo IFK.

3- Autolikidazinoaren zerga zenbatekoa ordaintzeko epea aurkezten danetik 10 egunekoa izango da. Epean ez ordaintzeak Derrigorrezko Bilketako prozedurearen arabera kobratea ekarriko dau.

Kuotak

A) Turismoak:	2018
8 zerga-zaldi baino gutxiago	25,62 €
8-11,99 zerga-zaldi	69,18 €
12-13,99 zerga-zaldi	122,00 €
14-15,99 zerga-zaldi	170,80 €
16-19,99 zerga-zaldi	219,61 €
20 zerga-zaldi baino gehiago	268,41 €
B) Autobusak:	
21 plazatik beherakoak	169,10 €
21 plazatik 50era bitartekoak	240,84 €
50 plazatik aurrerakoak	301,05 €
C) Kamioiak:	

Zama erabilgarriko 1.000 kg.tik beherakoak	85,83 €
1.000 kg.tik 2.999 kg.ra bitarteko zamakoak	169,10 €
3.000 kg.tik 9.999 kg.ra bitarteko zamakoak	240,84 €
9.999 kg.tik aurrerako zama erabilgarrikoak	301,05 €
D) Traktoreak:	
16 zerga-zaldi baino gutxiagokoak	35,87 €
16-25 zerga-zaldi bitartekoak	56,37 €
25 zerga-zalditik gorakoak	169,10 €
E) Trakzio mekanikozko ibilgailuek daramatzaten atoi eta erdi-atoiak:	
Zama erabilgarriko 1.000 kg.tik beherakoak	35,87 €
1.000 kg.tik 2.999 kg.ra bitarteko zamakoak	56,37 €
2.999 kg.tik aurrerako zama erabilgarrikoak	169,10 €
F) Gainerako ibilgailuak:	
Ziklomotorrak	10,18 €
125 z.k.rainoko motozikletak	10,18 €
125 z.k.tik 250 z.k.ra bitarteko motozikletak	15,37 €
250 z.k.tik 500 z.k.ra bitarteko motozikletak	30,75 €
500 z.k.tik 1.000 z.k.ra bitarteko motozikletak	71,32 €
1.000 z.k.tik aurrerako motozikletak	137,74 €